



2026NDIN0004

“BIZITZARAKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ” PROGRAMA SUSTATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO ELGOIBARKO UDALAREN ETA HERRI ESKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Alde batetik, **Maialen Gurmuxaga Uranga** andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmenak dituena.

Eta bestetik, **Nerea Gorostiza Uriguen** andrea, I5400394P NAN zenbakiduna, adinez nagusia, S4833001C IFK zenbakidun ELGOIBARKO HERRI ESKOLAREN izenean eta horren ordezkari gisa.

BILDU DIRA

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALDU DUTE

ELGOIBARKO UDALAK, udalerrian, “Bizitzarako Prestakuntza Euskaraz” programa sustatu nahirik, irakaskuntzaren esparruan bizitzarako prestakuntza euskaraz landuko duten programak antolatzeko laguntza eman nahi duela.

Hortaz, ELGOIBARKO HERRI ESKOLAK Elgoibarko udalerrian bizitzarako prestakuntza euskaraz sustatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztutako baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da ELGOIBARKO HERRI ESKOLAK, 2025-2026 ikasturtean, “Bizitzarako Prestakuntza Euskaraz” programa sustatzeko eta bideratzeko ELGOIBARKO UDALAK emango duen dirulaguntza arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, 26.893 euroko dirulaguntza emango dio ELGOIBARKO UDALAK (aurrekontuean, UDALA) ELGOIBARKO HERRI ESKOLARI (aurrekontuean HERRI ESKOLA). HERRI ESKOLAK, berriz, hitzarmen honen bitartez jasotakoaren arabera burutuko duela.

Hirugarrena: Dirulaguntza hau UDALAK 2026. urterako indarrean duen aurrekontuko 0209-481.323.00.02.2026 (130) zenbakidun partidatik ordainduko da, honako helburuak betetzeko:

- **Gazteria eta Hezkuntza**
 - Ikasleen heziketa prozesuan laguntzea eta ikastetxeen jarduna bideratzea.
 - Haurren sustapena.
- **Berdintasun Saila**
 - Indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko programak.
- **Ongizate Saila**
 - Adikzioen prebentzioan babes faktore direnen lanketa.

2026NDIN0004

- o Substantziadun zein substantziarik gabeko adikzioen prebentzioan eragina izan dezaketen adostutako bestelako jardunak gauzatzea.

- **Euskara Saila**

- o Ahozkotasuna-Bertsogintza egitasmorako.
- o Euskararen erabilera sustatzeko jardueretarako.

Laugarrena: HERRI ESKOLAK 2025-26 ikasturterako, "Bizitzarako Prestakuntza Euskaraz" programa lantzeko prestatu duen egitasmoa UDALARI aurkeztu dio, eta era berean, egitasmoan jasotako programei dagokien aurrekontu xehakaturia.

Bosgarrena: UDALAK bi alditan ordainduko dio dirulaguntza HERRI ESKOLARI, Udaleko Kontu-hartzailetzak dagozkion txostenak egin ostean.

Lehendabiziko zatia (%90), 24.203,7 €, hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean ordainduko da; bigarren zatia (%10) 2.689,3 €, berriz, dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztu eta hilabeteko epean.

Elgoibarko Udalaren eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundearen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 36.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiten den diru aurrerapena 30.000 eurotik gorakoa denean, berme horiek ezinbestean eratu beharko dira, onuraduna Sektore Publikoa eratzen duen erakunde bat den kasuetan izan ezik. Horrenbestez, Elgoibarko Herri Eskolak ez du bermerik eratu beharko.

Dirulaguntzaren bigarren zatia jaso ahal izateko, HERRI ESKOLAK eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du Udalak onartutako dirulaguntzagai diren jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu **era elektronikoan 2026ko ekainaren 5a baino lehen.**

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- Jardueraren edo proiektuaren garapena azaltzeko memoria, genero ikuspegia txertaturik (datuak sexuaren arabera bereizita azaldu beharko dira eta hizkuntza ez sexista erabiltzea bermatuko da). Memoria honetan arlo bakoitzeko helburuak betetzeko abian jarritako ekintzen berri emango da, hala nola helmena eta ebaluaketa.
- Dirulaguntza honen bitartez ordaindutako jardunak enpresa bat kontratatuz egiten direnean, enpresak prestatutako memoriaren kopia.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak. Alde horretatik, onartezinak izango dira legez ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Hezkuntza Zentroko diru-sarreraren eta gastuen behin betiko likidazioa, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldearen arrazoiak.
- Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (liburuxka, kartel, idatzi, argazki, bideo...). Dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko da Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori, eta horretarako, Udalaz gain, beste erakunde baten laguntza jaso bada ere berdin jokatuko da.

2026NDIN0004

- Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko.
- Zinpeko aitorpena. Hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein erakunde pribatu edo norbanakoren baten dirulaguntzak edota ordainketak jaso badira, gurasoen aportazioa bame, HERRI ESKOLAK horren berri eman beharko dio UDALARI.

Elgoibarko Udalak, NISA Eren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, "Bizitzarako prestakuntza euskaraz" egitasmoa burutzen duten hezkuntza zentroentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinamria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazio emandakoak. Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekariz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Elgoibarko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu hitzarmen honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISA Eren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- GIZARTE SEGURANTZAK: Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ALDUNDIAK: Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ELGOIBARKO UDALAK: Udalak ofizios egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Seigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta bertan agertzen diren konpromisoak betetzen diren arte iraungo du eta gehienez, 2026ko uztailaren 31ra arte.

Zazpigarrena: HERRI ESKOLAK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- ❖ Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du. Dirulaguntzagaia osotasunean gauzatu eta zuritu beharko du.
- ❖ HERRI ESKOLAK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- ❖ Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein erakunde pribatu edo norbanakoren baten dirulaguntzak edota ordainketak jaso badira, gurasoen aportazioa bame, HERRI ESKOLAK horren berri eman beharko dio UDALARI.
- ❖ Ekintzen publizitatea egiteko, zein familiei berri emateko, erabiliko diren euskarrietan Udalaren babesletza adieraztea Udalaren logoa jarrita, eta albisteetan Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela adierazita. Udalaz gain, beste erakunde baten laguntza jaso bada, dagokion logoa ere jarri beharko da.

2026NDIN0004

- ❖ Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agirietako edukietan.
- ❖ Dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia kontuan izatea, hau da, genero-identitate ezberdinen ezaugarri, baldintzak, nahiak eta beharrak kontuan hartzea, berdintasunerako ekintza eta helburu zehatzak txertatuz.
- ❖ Genero-bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duten egitasmo, proiektu edo jarduerarik ez antolatzea (Adikzio prebentzioa eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko programak salbuetsita).
- ❖ Hitzarmen honen baitan gauzatzen diren ekimen guztietan, euskararen erabilera bermatu eta sustatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak bideratuko ditu. Halaxe egingo da, baita, ekintzen publizitatean, informazioan eta haurren familiekiko komunikazioetan.
- ❖ Haurren integrazioa bermatuko du, horretarako beharrezkoak diren koordinazio bideak sustatuz.
- ❖ Haurrentzako zerbitzuarekin (Ludoteka) koordinatzea.
- ❖ Herriko beste hezkuntza zentroarekin egutegiak bateratzeko ahalegina egitea haurren aisia eskaintzaren onurarako eta ikasleen arteko aukera berdintasuna bermatzeko.
- ❖ Haurrentzako zerbitzuaren promoziorako ekimenetan parte hartzea eta laguntzea.
- ❖ Hezkuntza Mahaian parte hartzea.
- ❖ Antolatzen diren jarduera guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasunezko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.

Zortzigarren: Elkarlan honen baitan HERRI ESKOLAK eta UDALAK ondorengo konpromisoak hartzen dituzte:

- Ikasturtean gutxienez, bilera bat egitea hitzarmenaren nondik norakoak aurkezteko eta aztertzeke.
- Hitzarmenaren gestio administratiboetarako, HERRI ESKOLAK eta UDALAK ordezkari bana izendatuko dute ikasturte honetarako.
- Hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren egitasmoen jarraipena ikasturtez ikasturte egingo da eta udalaren sail bakoitzeko teknikariak izango du horren ardura.

Bederatzigarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da.

Horretaz gain, HERRI ESKOLARI dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskaeraren datuetan gezurak sartzea.
- Dirulaguntza emateko orduan ezarritako baldintzaren bat aldatzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea.
- Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
- Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea.
- Indarrean dagoen lege araudi guztia ez betetzea.

2026NDIN0004

Hamargarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publikok edo pribatuk, zein norbanakok xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin edo ordainketekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamaikagarrena: Hitzarmen honetan parte hartzen duten Elgoibarko Udaleko sailek izango dute hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Honako hau izango du kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- ❖ Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- ❖ Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- ❖ Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak egiaztatzea.

Hamabigarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko Autonomiadun Erakundeen Diru Laguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan, baita Emakume eta Gizonezkoan Berdintasunerako 4/2005 legea ere.

Hamahirugarrena: HERRI ESKOLAK, hitzarmen honen bidez zehazten den dirulaguntzaren onuradun den aldetik, UDALAK eskaintzen dion babesaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintza guztietan.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmena sinatzen dute izenpean jasotako toki-egunetan.

Sinatzailea/k	ALKATEA: MAIALEN GURRUTXAGA URANGA ELGOIBARKO HERRI ESKOLA, NEREA GOROSTIZA URIGUEN		
Kodea	HI26/0032	Udala	Elgoibar
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/100/AAAA94ZFC.lxLx		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakur ezazu.			



